

13.  
zbk.

# Kotarro

2010ko jaiak

debaldeko alea

## Garean Lizarrako festetan

Gareanek aurten ere, aitzineko urteetako arrakasta errepikatzen du, hirugarren Jai alai antolatzen du euskaldunek parte hartzeko. Urtero bezala Santiago Enparantzan, gainera berrikuntza bat: bazkaria izanen da asteazken eguerdian. Aukera bikaina egunero euskal giroan Lizarrako jaiak igarotzeko.

Garean egitarau osoa 7. orrian.



**Garean**  
Euskaldunon Elkarte



## Heldu dira Lizarrako jaiak!

Urteak aitzinera doaz eta dagoeneko XXI. mendeko 10. jaiak ditugu. Gainera aurten izan daitezkeen goizen, uztailaren 30ean hasiko baitira. Heldu den urtean askoz beranduago izanen dira, izan ere abuztuko lehenbiziko igandeak agintzen du. Zuek eta guk, bitartean, ongi pasa!

### Uztailaren 30a, ortzirala

- 12.00etan** Udaletxeko balkoitik, **SUZIRIA** jaurtikiko da; Larraiza eta Ibai-Ega taldeetako dantza riek Larrain Dantzaren Jota Zaharra dantzatuko dute, eta musika banda, txistulariak, gaiteroak, errondailak, akordeoilariak, dantzari ohiak, kalejira alaitsuak jotzen eta dantzatzeko ibiliko dira kaleetan zehar.
- 12.15etan** Foruen plazan, haurrendako bonba japoniarrak.
- 12.30etan** Los Llanos-ko zubian, CUCAÑA.
- 13.00etan** **Foruen plazan, dantzari ohiak omenaldia Aita Hilario Olazaran txistulariei eta Lizarrako dantzari belaunaldi guztiei, Larrain-dantza.** San Martin plazan, VOCES NAVARRAS jota taldearen ekitaldia.
- 13.00etan** **Ospitale Zaharretik, ERRALDOI ETA BURU HANDIEN konpartsaen irteera.**
- 17.45etan** Udal Gorenaren irteera bere segizio ofizialaz lagundurik.
- 18.15etan** Puy Birjinaren Basilikan BEZPERA NAGUSIAK. Haurrendako, bonba japoniarrak Puy-ko zelaian. Jarraian ohiko PUY-tik JAITSIERA.
- 18.30etan** Foruen plazan, haurrendako gymkhana sari eta ustekabez beterik.
- 20.15-21:45** Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
- 20.30etan** BEHI IGOERA entzierroaren bidean zehar.
- 21.00etan** San Andres eta La Bota peñen irteera Udaletxetik.
- 22.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.
- 23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia TRIKIZIO gizon orkestrarekin.**
- 23.00etan** **Txosnetan, rock kontzertua, INGRAVITO, SOÑADORES NATOS, ZE ESATEK! eta Djak.**
- 24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
- 01.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Hermanos Montero Gaiteroekin. Jarraian, CHE-ra jaitziera La Bota peñarekin.**
- 1:45-3:45** Foruen plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.

## Uztailaren 31a, larunbata

- 8.00etan** Dianak eta alboradak Musika Banda eta gaiteroekin.  
**8.00etan** BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.30etan** Remontival pilotalekuan, Eskuz Binakako V. Pilota Txapelketaren Finalak.  
**10.30etan** Lizarrako Udalbatzaren irteera.  
**11.00etan** Puy Birjinaren Basilikan, MEZA NAGUSIA.  
 Jarraian bonba japoniarrak.  
 Segidan, NESKEK PUY-tik JAITSIERA.  
**12.00etan** **LIZARRAN KANTUZ, Baxenafarra kaletik hasita, Garean-en eskutik.**



- 13.00etan** Los Llanos Pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**17.15etan** Lizarrako Udalbatzaren irteera.  
**17.30etan** San Miguel elizan, BEZPERA NAGUSIAK.  
**18.30etan** Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA  
 Finito de Córdoba – Alejandro Talavante – Daniel Luque  
 Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** San Martin plazan, "Chipilandia show" haurrendako antzerkia.  
**19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.  
**20.30etan** **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: LAIA LASTERKETA.**  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, dantzak Iturrieta gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran txistulariekin.**  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.**  
**23.00etan** **Txosnetan, rock kontzertua: KAN-OUT, AKATU, FLAKUTT eta gaupasa.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Ruiz-Echeverria Gaiteroen eskutik. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**  
**1:45-4:45** Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.

## Abuztuaren 1a, igandea

- 8.00etan** Dianak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.30etan** Lizarrako Udal Korporazioaren irteera.  
**11.00etan** San Pedro de la Rúa elizan, MEZA NAGUSIA.  
**11.30etan** Los Llanos Pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**12.00etan** PROZESIO HANDIA San Pedro de La Rúa elizatik.  
 Jarraian LA PAÑUELADA.  
**18.30etan** Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA  
 Rafael Rubio "Rafaelillo" - Iván Fandiño – Paco Ureña  
 Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** Santiago plazan, ipuin kontalaria.  
**20.30etan** **Santiago plazan, JAI ALAI HERRI DANTZA TRADIZIONALAK, Garean-en eskutik.**



- 19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, dantzak Ruiz-Echeverria Gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldeko txistulariekin.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia DRINDOTS taldearekin.**  
**23.00etan** **Txosnetan rok kontzertua: GOTO, THE KAMIKAZE BUBBLES eta OSTIAS Y EL KOPON**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.  
**01.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourria Ruiz-Etxeberria gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.

Bodegas  Lezaun  
 Asador-Jatetxea

Enoturismo  
 Visita gidatuak  
 Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA  
 info@lezaun.com - www.lezaun.com  
 Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

**KATXETAS**  
 Taberna

Estudio de Gramática, 2  
 31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010

## Abuztuaren 2a, astelehena

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HAUNDI KONPARTSAREN irteera**, udaletxetik. Ondoren, bomba japoniarrak Foruen plazan.  
**11.00etan** HAMAIKETAKOIA San Martin plazan, ardoa eta garagardoa Udalaren opari. Jarraian BOMBADA hiriko kaleetan zehar.  
**11.00etan** San Juan elizan, meza, Foruen plazan UDALAREN OMENALDIA NAGUSIEI eta "Acordes navarros" jota-taldearen emanaldia.  
**12.30etan** **Los Llanos pasealekuan, KONTZERTUA** Lizarrako Musika Bandaren eskutik. Atsedendian Udalaren Gaita Akademiako gaiteroen ekitaldia.  
**13.00etan** **Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**  
**13.00etan** Los Llanos pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldi berria.  
**17.30etan** San Migeleko zelaian, bomba japoniarrak.  
**18.00etan** San Miguel auzoko pilotalekuan, haur jolasak, "Como Quieras" taldearen eskutik.  
**18.30etan** Zezen plazan, BURTZIKADA ARTEAREN ZEZENKETA Antonio Ribeiro Telles - Pablo Hermoso de Mendoza Manuel Manzanares. Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** **San Martin plazan, "Gorriti".**  
**19.30-21.00** Foruen plazan, boleroak eta habanerak NUEVA ALASKA orkestrarekin.  
**20.30etan** **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: KARBA ETA TOKA JOKOA.**  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, bertako musika Gaita eta Danborreko gela gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariekin.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezenuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia MODESTO gizon-orkestrarekin.**  
**23.00etan** **La Bota peñaren egoitza berrian, rock kontzertua herriko taldeekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia NUEVA ALASKA orkestrarekin.  
**1.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Deierri Akademiako gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia NUEVA ALASKA orkestrarekin.

## Abuztuaren 3a, asteartea

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera**, udaletxetik.  
**11.30etan** Haur Korporazioaren harrera Udaletxean.  
**12.00etan** SUZIRIAK. Ondoren, San Pedro de La Rúa elizan, Haur Korporazioa. Jarraian, HAUR PAÑUELADA eta itzulera.  
**12.30etan** **Los Llanos pasealekuan, musika banda KONTZERTUA. Atsedendian ekitaldia Iturrieta gaiteroen eskutik.**
- 
- 13.00etan** **Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**  
**13.00etan** Los Llanos pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren azken emanaldia.  
**16.00-20.00** **Los Llanos pasealekuan, HAURRENDAKO JOLASPARKE HANDIA.**  
**18.00etan** **Remontival pilotalekuan pilota partida profesionalak.**  
**18.30etan** Zezen plazan, ERREKORTARIEN LEHIAKETA. Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.30-21.00** Foruen plazan, haurrendako ikuskizuna CRISTAL 975 orkestrarekin.  
**20.30etan** **Santiago plazan, GAREAN JAI ALAI: ARRAUTZA JOLASA.**  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, musika Deierriko Akademiako Gaiteroen eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariak.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezenuzkoaren lasterketa. Ondoren, HAURRENDAKO CHE-ra JAITSIERA La Bota peñarekin.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia HAITZAMA taldearekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia CRISTAL 975 orkestrarekin.  
**1.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Hermanos Montero gaiteroen eskutik.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia CRISTAL 975 orkestrarekin.

LIBURUDENDA  
**INO**  
 PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
 Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



**Abuztuaren 4a, asteazkena**

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**10.30etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera** udaletxetik. Ondoren, bonba japoniarrak Foruen plazan.  
**11.30etan** San Migel auzoko pilotalekuan, "Apararren Jaia".  
**12.00etan** Foruen plazan HERRI KIROLAK, La Botaren eskutik.  
**12.30etan** Los Llanos pasealekuan, Kontzertua Lizarrako Musika Bandaren eskutik. Atsedendian Ruiz-Echeverria Gaiteoren ekitaldia.  
**13.00etan** **Los Estellicas errondailaren eta Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**



- 13.15etan** Udaletxean, harrera ofiziala Estellerriko alkateei.  
**18.30etan** Zezen plazan, HERRI ZEKORKETA  
 Agustin Hipolito "Facultades" - Guillermo Sanz  
 Javier Solano - Miguel Angel Cerviño  
**20.30etan** BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**21.00etan** BEHI ENTZIERRUA.  
**19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia FABULOSA orkestrarekin.  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, musika Iturrieta gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariak.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia GAUBELA taldearekin.**  
**23.00-02.00** Koroatze enparantzan musika disko-dantza gazteentzat.  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia FABULOSA orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Ruiz-Echeverria gaiteroen eskutik.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia FABULOSA orkestrarekin.

**Abuztuaren 5a, ortzeguna**

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, udaletxetik.**  
**11.15etan** Urederra Ibaia plazan, bonba japoniarrak.  
**11.30etan** Santiago plazan, XLAJOARRIERO LEHIAKETA.  
**13.30etan** Ajoarriero Lehiaketaren lapiko hertsatzea.  
**17.30etan** BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**18.00etan** BEHI ENTZIERRUA zezen plazaraino.



- 19.00etan** San Migel auzoko pilotalekuan, haurrendako disko-festa show eta "globoflexia" lehiaketa  
**18.00etan** BEHI ENTZIERRUA zezen plazaraino.  
**19.00etan** **Santiago plazan, AJOARRIERO LEHIAKETAREN emaitza**  
**19.30-21.00** Foruen plazan, herri-dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.  
**21.00-22.00** **Gaita Musika Ruiz-Echeverria gaiteroen eskutik.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**24.00-1.00** Foruen plazan, herri-dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Iturrieta gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, herri-dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.

Jai Zoriontsuak!

**ANETSIA**  
 948551998  
 FANY DIEGO Y  
 LIZARRA

Bokatak, hamaiketakoak eta afari goxoak

Jatetxea

**Volante**

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak  
 Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

## Lizarrako txosnak



### Uztailak 29, ortzeguna

- 22:00 ekitaldia eta txupinazoa
- 23:00 kontzertuak
  - BAJO ZERO
  - DES+KARADAS
  - ESTRICALLA

### Uztailak 30, ortziralra

- 14:00 bazkari herrikoia
- 18:30 kalejira
- 00:00 kontzertuak
  - INGRAVITÓ
  - SONADORES NATOS
  - ZE ESATEK!
  - Dj Jairo + Dj Josebe + txalaparta + Performance

### Abuztuak 31, larunbata

- 18:00 haurrentzako jolasak
- 20:00 trikipoteoa
- 00:00 kontzertuak
  - KAN-OUT
  - AKATU
  - FLAKUTT
  - Gaupasa

### Abuztuak 1, igandea

- 23:00 SGAEren kontrako kontzertuak
  - GOTO kantautorea
  - THE KAMIKAZE BUBBLES
  - OSTIAS Y EL KOPON

### Abuztuak 3, asteartea

- 20:00 kalejira aldarrikatzailea  
Santiago enparantzatik

## Ikastolaren barrakak



Lizarra Ikastolak herriko jaietarako hainbat ekitaldi antolatatu du Santiago plazan (10.30etatik aurrera), jaietako euskal giroko guinea eskaini nahian:

- |                 |                      |
|-----------------|----------------------|
| • Ortziralra 30 | <b>Trikizio</b>      |
| • Larunbata 31  | <b>Joselu Anaiak</b> |
| • Igandea 1     | <b>Drindots</b>      |
| • Astelehena 2  | <b>Modesto</b>       |
| • Asteartea 3   | <b>Haitzama</b>      |
| • Asteazkena 4  | <b>Gaubela</b>       |

Bertzalde, ohiko SALDAren banaketa goizeko 08.00etatik 09.00arte.

## Soinuak

### Bittor

Hamaika dira jaietako partitura osatzen duten soinuak. Eguna eta gaua elkartuak agertzen zaizkigu soinuei esker. Egungo goizeko dianatik hasi eta hurrengo eguneko dianaz amaitu.

Beraz, esan daiteke, gustukoa izan ala ez, soinua (zarata edo musika) egun hauetako protagonista handienetarikoa dela.

Soinu bakoitzari esanahi desberdina eman diezaiokigu: txosnetatik aldarrikatzen duena, elizaren barruan otoitz egiten duena, Lizarrako bandak Los Llanosetan lasaitzen duena, peñek sortzen dutena...

Baina nik bereziki hiru soinu neureganatzen dudala aitortu nahi dut.

Lehenengoa kohetearena. Eztanda batek urte osoko tentsioak askatzen dituelako. Gorputzak astintzen ditu datorrena iragarri eta barneko suak berpizten ditu modu berezi batez urtetik urtera.

Bigarrena, Nabarrera kaleko txokotik zabaltzen da. Gure bihotzetatik zintziliek dauden argazkiei eskaintzen zaien aurrekuaren soinu leun eta sentikorraz ari naiz. Jaietako poza eta emozioaren malkoak batzen dituena.

Hirugarrenak Ospital zaharrean du abiapuntua. Erraldoi eta buruhandiekin batera doa, jendearen algara eta gaitaren notak nahasten ditu. Eta une batez bada ere, lehenengo garaietako jaietara eramaten nau.

Sinpleegiak irudi dakizkiguke jaietako ostiralean agertzen zaizkigun hiru soinu hauek, baina gonbidapena luzatzen dizuet bakoitzak bere soinua bila dezan. Begiak itxi, usaindu, entzun, gozatu. Merezi du eta.



Gazte giroa Lizarrako alde zaharrean

# Bar Berri

Navarrería, 47 • Tel. 948 54 66 46

**ILARGI**

ESTELLA-LIZARRA

**Deigual**

Nagusia kalea, 22  
Tel. 948 553 421

## Montejurrako txoriak, Montejurra laket



### Ni ere han nengoen

Regino Etxabe

Ni ere, beste Montejurrako txori asko bezala, Santiago plazan nengoen pasa den urtean festetako asteartean arratsaldeko azken orduan. Gareanek antolatutako arrautzaren jolasa ikusten. Saio ederra, beti bezain xumea, beti bezain alai. Saioaren bukaeran, batukadaren soinuak entzuten hasi ginen plazaren bestaldetik, eta hara abiatu ginen jai giroan jarraitzeko asmoz...

Gero gertatu zena, gutxi gorabehera, denok dakigu: guardia zibilaren agerpena, eztabaidak, hika-mikak, "negoziazioak", etab. Hori dena bukatu zelarik, batukadakoek bere kalejira jarraitu zuten, eta ni, beste Montejurrako txori asko bezala, nire euskal gerri zurruna kulunkarazten ahalegindu nintzen.

Oraindik ezin ditut sinetsi geroko gertaerak: atxiloketak, identifikazioak, Auzitegi Nazionalera eramateko mehatxua, ADN-frogak... Nola da posible? Nola bihur daiteke festetako pasadizo bat kartzelara joatea mezezi duen "ekintza"? Demokrazia bateko gertakizuna baino gehiago amets gaizto bateko zorakeria dirudi.

Baina, tira, Lizarrako festak hurbil ditugu, eta oporrak, eta ez dut ezeren kontra idatzi nahi. Alderantziz, nik festa herritarren alde egingo dut oihu: batukada, gaita, txistu eta berbena taldeekin dantza egin dezagun!, txalaparta eta kitarra elektrikoa jo ditzagun!, eta danborra!, eta Anis del Mono botila!; aldarrika dezagun!, goza dezagun!, bizi gaitezen! Gurekin jai daukate.

## Hegoa amets

Luisfer Etxeberria

Ergoienako Lizarraga omen da era naturalean inoiz galdu gabe euskara bizirik mantendu duen euskararen mapako hegoherria.

Estellerriko Lizarra, aldiz, euskaldunon elkarte bat daukan *ushuaia*.

Hurbiltasun geografikoak eragina izan dezake parekotasun honetan, biak baitira lizar Urbasaren magalean.

Euskarak hegoa du amets, Urederrak eta Egak beherako bidean bustitzen dituzten lurrak.

Eta niretzat ametsak dira bizitzaren motorea.

Ametsak amets, jai bezpera honetan festa onak pasatzea opa dizuet guziei!



**Udalbide.NET**  
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberria eta ilus ezazu zure UDALERRIaren informazio guztia eguneratuta.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor aurrerikoko difuzio Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hasbuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTEKARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net  
www.udalbilizara.eu

**Mirari**  
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella  
t. 948 554 001

www.centromirari.com

## GAREAN JAI ALAI 2010

Hirugarren urtez, GAREAN JAI ALAI izeneko ekitaldi sorta antolatuko du Gareanek Lizarrako festetan. Lizarrako jaietan euskaraz disfrutatu nahi dugu lagun arteko giroan. Horregatik gertuko jarduerak prestatu ditugu, parte hartzaileak, festa giroa sustatzeko.

### Jai bezperako jolasak

Uztailaren 29ko saio hau KULKIk antolatuko du, Lizarrako animazio taldeak. Nekazarien jolasak (baserriko jolasak) plazaratuko dituzte Foru plazan, hurbiltzen diren guzietan parte har dezaten.

### Lizarran kantuz

Uztailaren 31ko eguerdi aldera hasiko da Baxenabarra kaletik eta alde zaharretik egingen du ibilbidea. Ezarriak ongi berotzeko eta oinak dantzatan paratzeko aukera paregabea izanen da!

### Laia lasterketa

Uztailaren 31ko arratsaldean, zortzi t'erdietatik aurrera, laiariak izanen dira Santiago plazako harlauzen gainean tipi-tapa. Momentu batekoz, laiek ohiko baratzeko lur lanketa utzi eta plazara aterako dira euren hortzak erakusteko.

### Jauziak

Igande iluntzeko JAI ALAI n, dantza herritarrari egingen zaio tartea: Zazpi jauzi, Hegi, Ostalerrak, Lantzeko zortzikoa, Luzaideko Bolant dantza, Olagueko esku dantza, Polka pik, Irri dantza, Amairuko esku dantza, Zapatagin dantza eta Txapelo. Aukera aparta izanen da lagun artean dantzan egiteko!

### Punteriazko jokoak: karba, toka eta txirloak

Asteleheneko JAI ALAI desafioa bat izanen da punteria probatzeko. Joko ezberdinak plazaratuko dira guzietan punteria neurtzeko: harriak, burdinak edo egurrak eskuetan hartu eta jomugan asmatuz gero... dra eta lo!

### Arrautzaren jolasa

Asteartean, jaietako Umeen eguna izendatua izanik, hauei bereziki zuzendutako jolas bat izanen da JAI ALAI n: kolaran arrautza hartu eta ahoan eramanez joan-etorria egin beharko da, arrautza hautsi gabe ibilbidea egiten saiatuz.

### Garean bazkaria

Asteazkenean bazkaria egingen dugu Santiago Plazan, irekia, edonor etortzeko modukoa. Baina erne! Nork bere jana ekarri eta mahai-kideekin partitzeko prest egon behar du. Arratsaldeko 14:30etan elkartuko gara.

## Egitaraua

### Ortzeguna 30

19.30 **Jai bezperako jolasak** (Foru plazan).

### Larunbata 31

12.00 **Lizarran Kantuz**  
(Baxenafarra kaletik hasita).

20.30 **Laia lasterketa** (Santiago plazan).

### Igandea 1

20.30 **Jauziak** (Santiago plazan).

### Astelehena 2

20.30 **Punteriazko jokoak: karba, toka eta txirloak** (Santiago plazan).

### Asteartea 3

20.30 **Arrautzaren jolasa** (Santiago plazan).

### Asteazkena 4

14.30 **Garean bazkaria** (Santiago plazan).



**CANeko bezero zara?**  
**AUKERATU**  
**GAREAN ELKARTEAREN**  
**PROIEKTUA**  
**14857**

x+geure bezeroek x+  
aukeratutako can\*  
x+proiektua

kotarro



"La primera vez que le vi me dio tanto miedo. De él se dice que es un puerco barrigudo, un cabezón que pocas sonrisas desata entre los rostros inocentes de los niños"

KONTUZ EUSKALDUNOK!!!  
EZ FIDATU BERE ITXURAZ,  
OLENTZEROK ERE KRISTON  
ADARKADA  
JASO ZUEN...



## Erraldoi eta buruhaundiaren ibilbideak

### Ortzirala, uztailak 30

Irteera: 16.30ean.

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Puy, Izarra, Foruen Plaza, Caldereria, Santiago Plaza, Nagusia, Zapateria, Ruiz de Alda, Espoz y Mina, Ruiz de Alda, Zapateria, Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

### Larunbata, uztailak 31

Irteera: 10.30ean.

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Foruen Plaza, Caldereria, Santiago Plaza, Nagusia, Puy, Izarra, Carpinteria, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

Irteera: 17.15ean

Udalbatza lagunduko da Udaletxetik San Migel elizara, ondoko kaleetan zehar: Gaiteroen karrika, Nagusia, Zapateria eta Chapiel. Elizkizunak bukatutakoan kale berberetan zehar itzuliko da Udaletxera.

### Igandea, abuztuak 1

Irteera: 10.30ean.

Udaletxetik, Gaiteroen karrika, Nagusia, Zapateria eta Chapiel. Hemendik prozesioaren ibilbidea egingen da, gero aipatutako kale berberetan zehar itzultzeko.

### Astelehena, abuztuak 2

Irteera, 11:00etan.

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Santiago Plaza, "Entrañas" aldapa, Deierrri Etorbidea, Uharre Donibanekoa Doktoarea, Trenbideko Zubia, Arieta, San Jeronimo Egoitza, Arieta, Andia, Donibane Zubia, Deierrri Etorbidea, Zezen Plaza, Deierrri Etorbidea, Sortzez Garbia eta Udaletxea.

### Asteartea, abuztuak 3

Irteera: 11.00etan.

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Izarra, Foruen Plaza, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea. Jarraian Haur-Udalbatza lagunduko da San Migel Elizaraino, eta kale berdinetan zehar itzuliko da Udaletxeraino. Ondoren, Sortzez Garbia, San Andres, San Veremundo, Vianako Printzea, Coronacion Plaza, San Andres, Sortzez Garbia eta Udaletxea.

### Asteazkena, abuztuak 4

Irteera: 11.00etan.

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Nabarrerria, Erraldoiak eta Buru Handiak, Puy, Nagusia, Zapateria, Antso Ramirez, Azucarero zubia, San Martin plaza, La Rua, Hilobi Santua, La Rua, San Nikolas, Aben Seraq, Frai Diego, Los Llanos zubia, Antso Azkarra, Sortzez Garbia, Behe Nafarroa, Foruen Plaza, Comercio, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

### Ortzeguna, abuztuak 5

Irteera: 11.00etan.

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Erraldoiak eta Buru Handiak, Puy, Izarra, Foruen Plaza, Caldereria, Santiago Plaza, Nagusia, Behe Nafarroa, San Andres, Sorkunde Garbiaren Pasealekua, Gaiteroen karrika, Nagusia, Behe Nafarroa, Foruen Plaza, Behe Nafarroa, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.



kotarro

13. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E  
31200 Lizarra - Nafarroa  
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:  
Chapiel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 800

UDALBIDE

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.